



Ormaiztegui Udala

R-21/013 EBAZPENA

Ikusirik kultura teknikariaren karrerako funtzionarioaren plaza hornitzeko dagokion hautaketa prozesua burutu dela, oposaketa-lehiaketa sistema bidez.

Ikusirik aipatu plaza betetzeko deialdia 2020ko maiatzaren 14ko R-20/248 Ebazpenez onartu zela eta hautaketa prozesuaren deialdia zein oinarri arautzaileak 2020ko maiatzaren 18an argitaratu zirela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 91. zenbakian.

Kontuan hartuta hautaketa prozesuaren epaimahai kalifikatzaileak eginiko proposamena, zeinetan adierazten den hautagaietako bik gainditu dutela eta, emaitzarik onena Ane Aramburu Amilleta andreak lortu duenez, kultura teknikari plaza betetzeko praktiketako funtzionario Aramburu andrea izendatzea proposatzen diola organo eskudunari.

Hori guztia ikusirik, eta indarreko legediak ematen dizkidan eskuduntzen arabera,

EBAZTEN DUT:

LEHENA: Hautaketa prozesua burututa Epaimahai kalifikatzaileak proposaturiko eran, Ane Aramburu Amilleta andrea Ormaiztegui Udaleko 2020ko Enplegu Eskaintza Publikoan barneratutako "kultura teknikari" plazan praktiketako funtzionario izendatzea.

BIGARRENA: Praktiketako epealdiaren iraupena sei (6) hilabetekoa izango da. Denbora horretan eraginkor burutu beharko ditu plazaren eginkizunak eta, epea bukatzen denean, praktikaldia ebaluatzeko txostena aukeztuko du dagokion Udal sailak oinarrietan zehaztutako eran. Praktikaldiak izaera baztertzalea izan dezake.

HIRUGARRENA: Praktiketako funtzionario izendapenak 2021eko otsailaren 28tik aurrera izango du administrazio eragina.

LAUGARRENA: Ebazpen honen berri ematea interesatuei, Kontuhartzailletza Sailari eta langileen ordizkeriei, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrialdean ebazpen hau eta hautaketa prozesuaren arabera sortutako lan poltsaren publizitatea ematea.

KULTURA TEKNIKARIAREN HAUTAKETA PROZESUAREN ONDORIOZ SORTUTAKO

LAN POLTSA

Izen-abizenak	Nortasun agiria
Beñat Martínez Castillo	***6668**



Ormaiztegui Udala

BOSTGARRENA: Erabaki honen edukia interesatuari jakinarazi, ohartaraziz bide administratiboari amaiera ematen dion azaldutako behin betiko erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakeela Donostiako Kontentzioso-Administratiboko epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.


Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko lerroaldian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaioke ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

Ormaiztegin, 2021eko urtarrilaren 27an.

Alkatea,

Jon Enrique Galarza

Nire aurrean,
Idazkari-kontuhartzailea,

Begoña Antxustegi Bengoetxea